


1. Balio-proposamena

Gaur egun, gazteen %40ek baino gehiagok ortodontzia behar dute. Braket adimendunak hobekuntza handia dira, hortzak tradizionalak baino azkarrago eta zehatzago lerrokatzen dituztelako. Teknologia berri hau nobedadea da, dentistarik ez da inoiz hain aurreratua egon. Imajinatu braketak jartzea eta kendu behar diren egunera arte dentistarengana pertsonalki itzuli beharrik ez izatea.

Garapen ekonomiko handiko herrialdeetan braketak erabilitako gazteen ehunekoa



Odontologoarengana joateko denborarik ez galtzearen, azkartasunagatik eta erosotasunagatik nabarmentzen gara. Hau da, hortz-aparatuak dituzten jendea, hilero dentistara joan behar dira eta gure produktuarekin ez da beharrezkoa, aplikazio batetik kontrolatzen direlako. Adimendu braketak hainbat gauza berri eskaintzen dute. Adibidez, produktu oso ezagun eta komun batean teknologiaren erabilera ikustea oso

gauza berria da. Brakets hauek pertsonalizatuak dira eta pertsona bakoitzaren beharrei egokitzen da.

Zure dentistak aplikazioaren bidez kontrolatuko ditu zure hortzak. Hortz-gailu horiek zure hortzen beharretara egokituko da eta pixkanaka-pixkanaka lerrokatuko ditu. Horrela, ez zara dentista normal batean hilero dauden dentista-azterketara joan behar. Salbuespen bakarra, aparatuen apurketak, hausturak, deskonezioak edo halako edozein gauza egotea izango litzateke. Kasu hauetan, dentista-azterketa txiki batera joan beharko zinateke, baina, alako arazoak ez dira ohikoak gure klinikan.



Laburbilduz, braket hauek esperientzia erosoagoa eta azkarragoa eskaintzen dute irribarre perfektua lortzeko.